

# LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMENKO helburu orokorretatik abiatuta, ebaluazio- irizpideak ikasmilen arabera egokitzeko proposamena



LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMA  
Zer egin ikas mailaz ikasmila ikasleek lortu  
beharreko helburuak zehazteko?  
Nola moldatu curriculumeko irizpideak?

# LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMEKO helburu orokorretatik abiatuta, ebaluazio-irizpideak ikasmilen arabera egokitzeko proposamena

Dokumentu honek gida izan nahi du LHko zikloko irakasleek curriculumeko etapako helburuetatik abiatuta, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak ikasmilen artean banatu eta antola ditzaten.

## Aurrezurre eduki beharreko materialak:

- [Curriculumak](#) (Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma) \*Oharra: Curriculumen artean aldeak daude, Naturaren Zientzia eta Gizarte Zientzia arloen curriculumetan, esate baterako, ebaluazio-irizpideak eduki multzoen arabera antolatuta daude. Hizkuntzetan, aldiz, ebaluazio-irizpideak jarraian daude.
- Gelan baliatzen dituzuen ikasmaterialak (proiektuak, testuliburuak, eskolak berak sortutako materialak, sareko baliabideak...)

## Lan-taldea:

- Zikloko irakasleak

## PROZEDURA:

### 1. Curriculumeko helburu orokorrak aztertu eta hautatu.

- Adi! Helburu orokorrak etapa osoari dagozkio.
- Egiatzatu helburu horiek guztiak zikloan jorratzen diren ala ez. Aukeratu zikloari dagozkionak.
- Helburu orokorrak mugatzeko, ebaluazio-irizpideak baliatuko ditugu.

### 2. Ebaluazio-irizpideak aztertu eta hautatu:

- Hautatutako helburuei dagozkien ebaluazio-irizpideak aukeratu
- Ebaluazio-irizpide horiek egokitu egin behar ditugu.
- Haiek egokitzeko, bi egoera haiek topa ditzakegu:

Egoera 1: hautatutako ebaluazio-irizpideak ikasmila jakin batean lantzen dira. Ez dira egokitu behar.

Egoera 2: hautatutako ebaluazio-irizpideak ikasmila baten baino gehiagotan lantzen dira. Beraz, honako hau egin daiteke:

- Ebaluazio-adierazleak arretaz aztertu eta ikasmilen artean banatu; betiere, honako hauek kontuan hartuta:
  - Ikasmaterialetako edukiak (testuliburuak, gelako baliabideak, sareko materiala, gelako prozedurak, estrategiak, teknikak...).
  - Ikastetxearen jarduteko kultura, testuingurua, errealitatea, hizkuntza, egoerasoziolinguistikoa, ikasleen ezaugarriak eta beharrak.

(Oharra: ebaluazio-irizpideak idazteko era –tzeada: “Giza gorputzaren atalak eta haien funtzioa azaltzea”).

## Adibide 1. Ebaluazio-irizpideak zehazten

ARLOA: NATURAREN ZIENTZIAK				
HELBURU OROKORRA	Hautatutako ebaluazio-irizpideak	EBALUAZIO-IRIZPIDE MOLDATUAK		
		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA
<p>Nork bere burua eta <b>osasuna</b> zaintzeko eta <b>bizimodu osasungarria</b> izateko <b>jarrerak eta ohiturak</b> garatzea, <b>giza gorputzaren ezagutza</b> zientifikoa oinarri hartuta, eta <b>banakoen arteko desberdintasunak</b> <b>errazten, bizi-ohitura osasungarriak</b> sustatuz eta banakoei nahiz taldeei eragin diezaieketen <b>arriskuak</b> saihestuz.</p>	<p>6. Giza gorputzaren atal eta funtzio nagusiak identifikatzea eta kokatzea, haien arteko erlazioak ezartzea eta naturaltasunez onartzea hazkundera eta sexu-bereizketak eragindako aldaketak.</p> <p>7. Aztertzea zein garrantzitsuak diren dieta, higiena eta ariketa fisikoa, osasuntsu eusteko, gaixotasunak eta istripuak prebenitzeko eta norberaren ongizaterako</p>	<p>Giza gorputzaren atalak zuzenean behatu, adierazi eta deskribatzea.</p>	<p>*Giza gorputzaren atalak eta haien funtzioa azaltzea eta euskarriren batean azaltzea zentzumenen organoak eta funtzioak. Gorputzean gertatzen diren aldaketek ohartzea.</p>	<p>Adieraztea arnasketa- eta digestio-prozesuak eta hazkunderaren eta pertsonen arteko sexu-bereizketaren ondoriozko desberdintasunak onartu eta errespetatzea.</p>

EUSKARA ETA LITERATURA				
HELBURU OROKORRA	Hautatutako ebaluazio-irizpidea	EBALUAZIO-IRIZPIDE MOLDATUAK		
		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA
<p><b>Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.</b></p>	<p>Harreman interpersoneletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, informazio garrantzitsuena ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.</p>	<p>Harreman interpersoneletako eta hezkuntzako sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta, testuen zentzu orokorrari igartzea, informazio garrantzitsuena bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazioa modu gidatuan hautatuz.</p>	<p>*Harreman interpersoneletan, eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertu daudenak), informazio garrantzitsuena bereiziz, informazioa <u>erregistratzeko baliabideak modu gidatuan erabiliz</u>, oso nabarmenak diren diskriminazio esapideak bereiziz eta eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazioa hautatuz.</p>	<p>Harreman interpersoneletako, <u>hedabideetako</u> eta hezkuntzako euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat) eta haietan zentzu orokorrari igartzea, <u>testuen gaia eta ideia nagusiak ulertzea</u> eta <u>informazioa erregistratzeko baliabideak erabiltzea</u>, kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatuz,</p>

### 3. Ebaluazio-irizpideak adierazleen bidez zehaztu:

Ebaluazio-irizpideak mailakatuta ditugula, ebaluazio-adierazleak zehaztuko ditugu. Kontuan hartu behar da ebaluazio-adierazleak ez direla derrigorrezkoak; orientabide gisa ematen dira. Horregatik, bide bat baino gehiago dago ebaluazio-adierazleetara heltzeko. Guk hauxe proposatzen dugu:

- Ebaluazio-irizpidetik abiatuta, haren osagaiak banatu eta ebaluazio-adierazleak ateratzea (\*\*)

#### Adibide 2. Ebaluazio-adierazleak zehazten

NATURAREN ZIENTZIAK	
EBALUAZIO-IRIZPIDE MOLDATUA (2.maila, adibidea)	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK **
*Gizagorputzarenatalaketa haienfuntzioaazaltzeaeta euskarribateanazaltzea zentzumenenorganoaketa funtzioak. Gorputzeangertatzendiren aldaketezohartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Giza gorputzaren atalak azaltzen ditu. Giza gorputzaren atalen funtzioa azaltzen du</li> <li>● Euskarri digital erraz bat baliatuta azaltzen ditu zentzumenen organoak eta funtzioak.</li> <li>● Gorputzean gertatzen diren aldaketek ohartzen da.</li> <li>● ....</li> </ul>
EUSKARA ETA LITERATURA	
EBALUAZIO-IRIZPIDE MOLDATUA (2.maila, adibidea)	EBALUAZIO-ADIERAZLEAK **
**Harreman interperzonaletan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, informazio garrantzitsuena ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Testuaren zentzu orokorrari igartzen dio</li> <li>● Testuaren ideia nagusiak antzematen ditu</li> <li>● Ahozko testuak ulertzean sortzen zaizkion zalantzak argitzen ditu eskura dituen estrategia sinpleak modu gidatuan erabiltzeko.</li> <li>● Entzuketa lanetarako beharrezkoa den informazioa bereizten du.</li> <li>● Gai da informazioa erregistratzeko irakasleek emandako baliabideak modu gidatuan erabiltzeko: fitxak, taulak...</li> <li>● Nabarmenak diren bazterketa adierazpenei igartzen die.</li> </ul>

Ebaluazio-adierazle horiez gain, curriculumean beste batzuk topa ditzakezue. Hala ere, ebaluazio-adierazle horiek ez dira ebaluatu daitezkeen alderdi bakarrak. Ikastetxeak eta irakasle taldeak beste batzuk jar ditzakete osagarri; betiere, ikastetxearen, ikasleen ezaugarrien eta beharren arabera.

## ONDORIOA

Prozedura honetan erakutsi nahi izan dugunez, ebaluazio-irizpideak dira etapako helburuak zehazteko bidea. Ikasmilaz ikasmila proposatuko diren ebaluazio-irizpide horien bidez erdietsiko dira etaparako aurreikusi diren helburuak.